

EUSKAMPUS FUNDAZIOA

Auditoriako txostena

**AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO ETEen URTEKO KONTUEN
AUDITORIARI BURUZKO TXOSTENA**

Euskampus Fundazioko patronoei, Patronatuak aginduta.

Iritzia, salbuespenak salbuespen

Euskampus Fundazioari (Fundazioa) atxikitako ETEen urteko kontuen auditoria egin dugu, eta kontu horietan sartzen dira 2017ko abenduaren 31ko balantzea eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion emaitzen kontua eta memoria.

Gure txosteneko *Iritziaren oinarria, salbuespenak salbuespen* atalean deskribatu dugun alderdiak izan ditzakeen ondorioak salbu, gure ustez, atxikitako ETEen urteko kontuetan Fundazioak 2017ko abenduaren 31n zuen ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi zehatza adierazten da, alderdi adierazgarri guztietan, baita data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion emaitzen ere –horiek guztiak laburtuta daude–, betiere informazio finantzarioari buruz aplikatu beharreko arau esparruari (atxikitako memoriaren 2. oharrean identifikatuta dago) eta, zehazki, araudi horretan bildutako kontabilitateko irizpide eta printzipioei jarraikiz.

Iritziaren oinarria, salbuespenak salbuespen

Atxikitako urteko kontuen memoriaren 13. oharrean, Fundazioak urte osoan egin dituen jarduerak deskribatu ditugu, eta jarduera horietarako erabili diren baliabideak eta baliabide horien finantzabideak kuantifikatu ditugu. Erabilitako baliabideei dagokionez, langile gastuen kapitulua nabarmentzen da; egindako jarduera guztietarako 765.615 euro dira, ETEen memoriaren 13. oharrean jasota dagoenez. Langile gastuak jardueren artean banatzeko, Fundazioaren Zuzendaritzak egindako estimazioetan oinarritzen da. Ezin dugu egiaztatu langileek benetan jardun ote duten erreferentziako jarduera horietan, Euskampus Fundazioak ez baitu lanaren kostuak eta denborak kontrolatzeko eta egozteko sistema egiaztatagarririk.

Kontuen auditoretza jarduera arautzen duen araudiari dagokionez, Espainian indarrean dagoenari jarraikiz egin dugu gure auditoria. Arau horien arabera dagozkigun erantzukizunak aurrerago deskribatuko ditugu, gure txosteneko *Auditorearen erantzukizunak ETEen urteko kontuen auditoriari dagokionez* atalean.

Kontuen auditoretzako jarduera arautzen duen araudian eskatzen denez, Espainian ETEen urteko kontuen gure auditoriari aplikatu beharreko etikako eskakizunei jarraikiz –baita independentziaren eskakizunari ere–, Fundazioarekiko independenteak gara. Zentzu horretan, ez dugu eman kontuen auditoretza ez den beste zerbitzurik eta, araudi erregulatzailer horretan xedatutakoaren arabera, ez da gertatu beharrezkoa den independentzia hori zalantzan jarri ahal izan duen egoera edo zirkunstantziarik.

Lortu dugun auditoriaren ebidentziak eman digu, gure ustez, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia, salbuespenak salbuespen.

Auditoriaren alderdi garrantzitsuenak

Aldi honetako ETEen urteko kontuen gure auditorian, gure iritzi profesionalaren arabera, akats materialak izateko arrisku adierazgarrientzat hartu diren alderdiak izan dira garrantzitsuenak. Arrisku horiek ETEen kontuen gure auditoriaren testuinguruan, oro har, landu dira, baita arriskuei buruzko gure iritzia eman dugunean ere, eta ez dugu arrisku horiei buruzko aparteko iritzirik adierazi.

Fundazioak lortutako baliabideak eta baliabide horiek diru-sarreretara egozteak

Deskribapena: Fundazioak baliabideak jasotzen ditu fundazioaren borondatez erabakitako helburuak betetzeko; hortaz, gure ustez, bai lortutako baliabideak egiaztatzea, bai baliabide horiek diru-sarreretara egozteak arrisku dira gure auditorian, Fundazioarentzat zenbateko adierazgarriak direlako; izan ere, ekitaldiko soberakina, hein handi batean, alderdi horien arabera zehazten baita.

Baliabideak lortzearekin eta baliabide horiek diru-sarreretara aplikatzearekin lotutako banakatzeko zehaztuta daude, atxikitako ETEen memoriaren 10., 12., 13. eta 14. oharretan.

Gure erantzuna: Gure erantzuna zera izan da, Fundazioak diseinatuta dituen kontrolak ezagutzea; horretarako, proba analitikoak eta zehatzak egin ditugu, Fundazioak lortutako baliabideak zentzuzkoak direla ziurtatzeko eta baliabide horiekin emaitzetara eta/edo ondare garbira egindako egozpena baliabide horiek jasotzeko arrazoi izan ziren helburuak betetzearekin koherentea dela ziurtatzeko.

Patronatuaren erantzukizuna ETEen urteko kontuei dagokienez

Patronatuaren erantzukizuna da atxikitako ETEen urteko kontuak egitea, Fundazioaren ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi zehatza adierazteko moduan, betiere erakundeari Espainian aplikatu beharreko informazio finantzarioaren arau esparruari jarraikiz eta beharrezko iritzitako barne kontrolaren arabera, ETEen urteko kontuak iruzur edo huts-egiteren batek eragindako akats materialik gabe prestatu ahal izateko.

ETEen urteko kontuak prestatzean, Patronatuari dagokio Fundazioak jarduneko enpresa izaten jarraitzeko gaitasuna ote duen baloratzea eta, hala badagokio, jarduneko enpresari lotutako gaiak azaldu behar ditu eta jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabili behar du, salbu eta Patronatuak Fundazioa likidatzeko eta eragiketak amaitzeko asmoa badu, edo beste aukera errealistarik ez badago.

Auditorearen erantzukizunak ETEen urteko kontuen auditoriari dagokionez

Gure helburua da, alde batetik, ETEen urteko kontuetan, oro har, iruzur edo huts-egiteren batek eragindako akats materialik ez dagoelako zentzuzko segurtasuna lortzea eta, bestetik, gure iritzia jasotzen duen auditoriako txostena egitea.

Zentzuzko segurtasuna segurtasun-maila altua da, baina, hala ere, ez du bermatzen Espainian auditoretzako jarduna arautzeko araudiarekin bat egindako auditoria batek beti hautemango duenik akats materialen bat, baldin badago. Akatsak iruzur edo huts-egiteen ondoriozkoak izan daitezke, eta akats materialtzat hartuko dira baldin eta, banaka edo batera hartuta, ETEen urteko kontuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragingo duten zentzuzko aurreikuspena egiten bada.

Auditoriako txosten honen I. eranskinean, ETEen urteko kontuen auditoriarekin lotuta ditugun erantzukizunak zehazkiago deskribatzen dira. Deskribapen hori 4. eta 5. orrialdeetan dago, eta auditoriari buruzko gure txostenaren parte da.

Bilbo, 2018ko maiatzaren 25a

Auditoriari buruzko gure txostenaren I. eranskina

Auditoriari buruzko gure txostenean jasotakoaz gain, Eranskin honetan, ETEen urteko kontuen auditoriari dagokionez guk ditugun erantzukizunak aipatuko ditugu.

Auditorearen erantzukizunak ETEen urteko kontuen auditoriari dagokionez

Espanian auditoretza jarduera arautzen duen araudia betetzen duen auditoria garen aldetik, gure iritzi pertsonala aplikatu dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrera izan dugu auditoriaren prozesu osoan. Halaber:

- ETEen urteko kontuetan iruzur edo huts-egite baten ondoriozko akats materialik egoteko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, auditoriako prozedurak ezartzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta gure iritzia oinarritzeko auditoria ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu. Iruzurrak eragindako akats materialik ez hautemateko arriskua handiagoa da huts-egite baten ondoriozko akats materialik ez aurkitzeko arriskua baino; izan ere, iruzurrak kolusioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne kontrola saihestea ekar baitezake.
- Auditoria egiteko garrantzitsua den erakundearen barne kontrolaren berri izaten dugu, egoeraren arabera egokiak diren auditoretzako prozedurak diseinatzeko, eta ez erakundearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko.
- Aplikatzen diren kontabilitateko politikak egokiak ote diren ebaluatzen dugu, eta kontabilitateko estimazioak eta Patronatuak emandako informazioa arrazoizkoak ote diren ere bai.
- Patronatuak jarduneko enpresaren kontabilitate printzipioa egoki erabiltzen ote duen ondorioztatzen dugu eta, lortutako auditoriako ebidentzian oinarrituta, Fundazioak jarduneko enpresa gisa jarraitzeko gaitasunari buruzko zalantza adierazgarriak eragin ditzaketen gertaerei edo baldintzei lotutako zalantza materialik ba ote dagoen ebatzen dugu. Zalantza materiala badagoela ondorioztatuz gero, ETEen urteko kontuetan azalerazi den informazioaren gainean ohartarazteko betebeharra dugu auditoriari buruzko gure txostenean; edo, azalerazi den informazio hori okerra bada, iritzi aldatua adierazi behar dugu. Auditoriari buruzko gure txostena idazteko egunera arte lortutako auditoretza ebidentzian oinarritzen dira gure ondorioak. Dena dela, gerta daiteke txostena idatzi ondoko gertaera edo baldintzen ondorioz Fundazioak jarduneko enpresa izateari utzi behar izatea.
- ETEen urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, baita azaleraizitako informazioa ere, eta ETEen urteko kontuetan transakzio eta azpiko gertaera guztiak egoki, hau da, irudi zehatza adierazteko moduan jasotzen ote diren aztertzen dugu.

Erakundearen Patronatuarekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako auditoria noiz egin behar den eta zenbaterainoko irismena izan duen jakiteko, auditorian azaldutako kontu nagusiak aztertzeko eta auditorian aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren berri emateko.

Erakundearen Patronatuari jakinarazi dizkiogun arrisku adierazgarrien artean, ETEen aldi honetako urteko kontuen auditorian garrantzitsuenak izan direnak zehaztu ditugu, horiexek baitira, hain justu, arrisku adierazgarrienak.

Arrisku horiek auditoriari buruzko gure txostenean deskribatzen ditugu, baldin eta lege edo arau bidezko xedapenetan gai horiek jendaurrean azaltzea debekatzen ez bada.